

GAIZKI ERRANKA

Txinako entziklopedia bat



Santi Leoné
@ororostorm

Borgesek dio Humek zioela mundua beharbada haur jainko batek egindako zirriborro baldarra dela, akitu gabe utzi zuena, hain lan kaskarra egin izanaz lotsatuta; jainko nagusiek irri egiten dioten bigarren mailako jainko baten obra da mundua. Humek ez, Borgesek dio ez dakigula mundua zer eta zertarako den; horregatik, gauzak sailkatzeko zerrenda guziak –ipuin horretan aipatu edo asmatu zuen Txinako entziklopedia batek zekarren zerrenda xelebrea, gero Foucaultek *Les mots et les choses* (*Hitzak eta gauzak*) saiakerako lehen orrialdera eraman zuena– mundua ulertzeko alferrikako eginahalak dira.

Nik ere ez dakit mundua zer edo zertarako den. Baina uste nuen literatura, bertzeak bertze, topikoak hausteko zela. Bistan da oker nenbilela.

Mundua ez, apalago jokatu dute *El País*-en: Espainia ezagutzeko 52 lan literario proposatu dizkigute, bat probintziako. Niri, bonet gorriak burua estutzen baitit, badakizkizuen lau probintzia horietakoak interesatu zaizkit. Araba ezagutzeko, Marta Extramianaren *El caso de los amores proscritos* (*Debekatutako amodioen kasua*) irakurri behar omen da; ez naiz kezkatuko, ez baitut Extramianaren libururik irakurri, eta, bertzalde, lezea sakonagoa izan baitzitekeen.

Gipuzkoa –erran nahi baita Gipuzkoa sakona: barka erredundantzia– ezagutu nahi duenak irakur dezala, nola ez, Fernando Arambururen *Patria*. Nafarroa –sakona hau ere, pentsatzen dut– zer den jakiteko ez da Valle-Inclanen *Neguko sonata* baino egokiagorik: ea *El Paísek* hurrengo zerrenda egin orduko *El Pensamiento navarro* –oximoron hori– irakurtzeari utzi eta idazleren bat sortzen dugun. Eta Bizkaian: *Bilbao-New York-Bilbao*, berriki Felipe VI. arekin ibilitako idazleak perpetratua.

Euskal terroristak, nafar karlistak, euskaldun maitagarriak. Jaime Rubiok sinatzen du zerrenda. Nik ere ez dakit mundua zer edo zertarako den. Baina uste nuen literatura, bertzeak bertze, topikoak hausteko zela. Bistan da oker nenbilela. ■

EZ HANKA EZ BURU!



ENPIRIKOKI FROGATUA!!

